

## **'Euskaraz Gazte' literatur lehiaketara lanak aurkezteko epea irekita dago**

DV. Orioko Udaleko Euskara, Hezkuntza eta Merkataritza batzordeak urtero antolatzen duen ' Euskaraz Gazte ' literatur lehiaketa martxan da dagoeneko, honako helburuarekin, idazteko zaletasuna suspertzea Orioko eta Aiako gazte-jendearen artean. Aurten hamaseigarren urtea bete du lehiaketak. Lehiaketan parte hartzeko bi modalitate izango dira: ipuinak, alde batetik, eta bertso edo olerkiak, bestetik. Parte hartzaileak 16 urtetik gorako oriotarrak edo aiarrak izango dira.

Orain arte libre izan da beti gaia bi modalitateetan, baina, oraingo honetan, kontuan hartuta sari banaketa maiatzean egingo dela eta Herriko natur taldeak natur jardunaldiak antolatu dituela maiatza osoan, ekimen horrekin bat egin nahi izan du Euskara batzordeak eta bertso eta olerkietako gaia mugatu egin du. Gaia, beraz, bertso eta olerkien atalerako, natura eta ingurumena izango da.

Sariei dagokionez, ipuinetan, lehen saria 300 eurokoa izango da, bigarrena, 200 euro eta hirugarrena, 150; bi accessit ere izango dira, 100 euro banakoak. Bertso eta olerkien modalitaterako sariak berdinak izango dira. Guztira 1.700 euro banatuko dira saritan.

Epaimahaia Orioko Udaleko ordezkari batek, Aiako Udaleko beste ordezkari batek eta Karkara aldizkariko beste batek osatuko dute. Epaimahaiak batipat gaien gertutasuna baloratuko du.

Lanak Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuan edo Aiako kultur etxean aurkeztu behar dira eta, horretarako, apirilaren 24a izango da azken eguna. Beraz, animatu eta idaztera.